



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-06-20**

VIII. URTEA 2.032. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ekitaldi hunkigarri batekin izendatu dute Edurne Pasaban Alaba Kuttun

TOLOSA Lagun, senitarteko, kirolari eta oro har herritarrez inguratuta jaso zuen mendizaleak izendapena

OMENALDIA Kirolari bezala lortutakoa baino, tolosarraren «alde gizatiarra» nabarmendu zuten atzokoan » 6



Ezkerretik eskubira Edurne Pasabanen amona, aita eta ama, mendizalea bera, Juan Garmendia Larrañaga eta Antonio Zabala seme kuttunak eta herriko alkate izandakoak. E. EZEIZA

ANJEL OIARTZABAL IBLITARIA

«Aldrebes nindoala esaten zidaten eta nik ezetz, bueltan nentorrela»

ALEGIA Santiago Bidea egin du oinez; Santiagora joan eta etorri egin du Xacobeo urte honetan » 4

**Bertsolariek
girotutako
bazkaria Gazte
Festen azken
egunean**

IBARRA Desordutan taldeak agurtuko ditu jaiak » 7

**Didier Zago eta
Nerea Amilibia
Txindoki
Bertikaleko
azkarrenak**

ABALTZISKETA 161 korrikalarik hartu dute parte »

prestatu nahi al duzu? **FUTURO** ¿quieres formarte?

Oficio
Graduado ESO



PCPi

Peñascal
fundación fundazioa

Tolosa

Polígono Usabal Sur, nº 5 - C
Tel. 943 67 61 61
usabal@fundacionpenascal.com

CARPINTERÍA METÁLICA - SOLDADURA - HOSTELERÍA - ALIMENTACIÓN

Aupa Reala, beti Reala!



» Uzturretik

Iker Iriarte

Realalehen mailara igo den hotetan, eta munduko txapelketa puri-purian dagoela, futbolaz hitz egitea erabaki dut, ez bainaz batere futbolzalea. Ekintza

komertziala izan da nire lehen artikulua honi 'Aupa Reala, beti Reala!' izenburua jartzea; banekien izenburu hori ikusita irakurtzen hasiko zinetela.

Euforia kolektiboetatik urruntzen saiatu izan naiz beti, salbuespenak salbuespen. Gorroto dut jendea zoriontsu delako zoriontsu izan behar hori. Ez naiz gehiengoak ospatzen duena ospatu zale, Realaren igoera adibidez. Irudipena dut zoriontsu izateko bideak (ere) inposatu egiten dizkigutela, ez dugula zoriona bilatzeko modu propiorik. Niretzat zoriona ez da

Realaren igoera; ni zoriontsu ardo onez bustitako ilunabar batek egiten nau, konpainia onean Bob Dylan entzunez, mundua eta bizitza kontenplatu; asteburu batek Maulen; erreka batek Aralarren.

Eta noski, gaur egungo haurrek, zoriontsu izateko, futboleko elastikoak behar dituzte. Deigarria da dagoen barietatea: munduko edozein lekutako edozein talde edo selekzioaren elastikoak jantzen dituzte (egun, Bartzelona da modakoena), jokalarien izen eta guzti. Guk haien adinean Rea-

leko elastiko marrazabala bakarrik ezagutzen genuen, eta zortedunenoi amak bizkarrean josten zigan gustuko genuen zenbakia. Guretzat Reala zen talde bakarra: gipuzkoarren taldea, euskaldunona, kastakoa, bertakoa, etxekoa. Gustura jakingo nuke haur batek zer sentitzen duen Chelsea edo Portugaleko selekzioeko elastikoekin.

Gutxienik kezkarria iruditzen zait futbolekin eta futbolariarekin dagoen obsesioa. Nago, ez direla balore onenak gaur egungo futbolarenak eta bere tes-

tuinguruarenak haur eta gazte-txoen heziketarako: zaleek aurkako taldeko jokalaria, zaleak eta epailea iraintzen dituzte, erreparorik gabe.

Dirudunak dira haien izarrak, telebistan afizio nagusi *play station* dutela esaten duten horietan, janari azkarreko kate ezagun baten iragarkian agertzen direnak. Baina zer ikasiko dute ba haurrek beren inguruko jendemu-
ltzo handi bat badago obsesio-
natuta Realarekin, munduko txapelketarekin eta futbolarekin oro har...

San Joan jaietako azoka benetan borobila

Azoka » Trianguloa plazan Urola Kostako produktuak izan ziren nagusi; Zerkausian azelga gorriak ikusi ahal izan ziren.

PABLO ALBERDI

Atzoko San Joanetako azoka berezia oso egun ederrean suertatu zen.

Goizeko lehenengo orduetatik izan ziren bisitariak postuetan, eta hauetan ikusitako zerrenda benetan aipagarria sumatzen zen.

Azoka berezia zela eta, Trianguloa plazan Urola Kostako ekizle-
en postuak izan genituen, udal-
txeak antolatuta, eta ekarritako
produktu zerrendan ez zen batere
falta izan. Arraiak, kotserbak, ba-
razkiak, postreak edo eta ardoak
izan ziren nagusi. Arrantzatzeko
sareetako jostunak ere ikusi ahal
izan genituen Trianguloan.

Zerkausiko ekizleek ez ziren atzean geratu, eta atzoko egunerako berrikuntzak ekarri egin zituzten. Azelga gorriak adibidez sorpresa izan ziren, eta hauekin Ibarako piparrak, benetan finak eta kalitatezkoak, 10 eurotan saldu zirenak, hain zuzen.

Perretxiko zerrenda ere ez zen eskasa izan, eta guztien artean, ondoak nagusitu ziren. Zizak eta senderuelak ere izan ziren.



Urola Kostako produktuek hartu zuten Trianguloa plaza atzo goiz osoan zehar. M. SAN SEBASTIAN

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merka	Gares.
Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Albahaca	1,50	6,00

Zainzuria	2,80	
Salbia	1,00	1,20
Zilantroa	1,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Ziza horia	20,00	-
Onddoak	30,00	-
Gibelurdina	30,00	-

Fruta		
Errezil sagarra	1,00	-
Urura	2,00	4,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)		
Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-

Barazkiak (kiloa)		
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,25	4,00

H Hilberria

JOSEFINA GARMENDIA TOLOSA
ANDREA
(JUAN DORRONSOROREN ALARGUNA)
Atzo hil zen, 86 urte zituela.
-Goian bego-

Bere seme-alabak: Miguel, Anttonio, Daniel, Lurdes eta Izaskun; biloba: Ilazki Ordozgoiti; ahizpa: Carmen (i); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzela BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zizurkilgo ARANTZAZUKO ANDRA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Akezko auzoa, 4-2 (Zizurkil).
Oharra: Gorpua VASCONGADA EHORZKETAKO beilatokian (Errakalde auzoa), astelehena goizeko 10:30ak arte egongo da.

ZIZURKILEN
2010eko ekainaren
20an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

K Komikia

Gorka Salaberria



Z Zurea da hitza

Errealekoak Tolosan

Berri onarekin hasi genuen astea: Erreala lehen mailara! Lehen eguneko ospakizunetara joateko aukerarik ez nuen izan, gurasoa bainaz, baina jokalarien autobusa herrietatik pasako zela jakitean sekulako poza hartu nuen, ni eta semea Errealeko jokariak ikusteko aukera izango genuen, bertatik bertara! Hantxe ginen ostegun goizean, Triangulo plazan, zain. Baina gure harridurarako pasa eta gelditu ere ez ziren egin! ez gelditu ez, eta kaso egiteko aukerarik ere ez, kristal beltzen atzean ez baitzen ezer ikusten! Penatuta itzuli ginen etxera semea eta ni. Pena izan zen agurtzeko aukerarik ez izatea. Nere ingurukoek ere sentsazio bera izan zutela uste dut gainera.

Gurasoa.



Realeko jokariak Tolosatik pasatzerakoan hartutako irudia. J. MUJICA

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4 solairua, igogailuarekin eta sotoarekin. Gela guztiak kanpoadera begira. Interesatuak deitu 679-44 05 27 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean 50 metro karratuko atiko argitsua salgai. Egoera onean eta oso argitsua. Igogailua du. 141.839 euro (23.600.000 peza). 943-43 00 20. Zuzeneko salmenta.

■ **Etxebizitza.** Orioko hondartza ondoan, garaje itxia saltzen dut. Modu onean. Interesatuak deitu

605-74 26 96 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Peñiscolan 7 pertsonentzako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean, baldakoiarekin, haize egokitua, igogailuarekin, parkinarekin eta bi igerileku ditu. 617-42 89 52.

PISUKIDEBILA

■ **Etxebizitza.** Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko Tolosan. Oso leku onean dago eta prezio onean. 627-98 53 76.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

E Elkarrizketa

ANJEL OIARTZABAL › Ibiltaria



JOXEMI SAIZAR

«Santiagora joaterako garbi nuen etorri ere oinez etorri behar nuela»

Santiago Bidea» Alegiatik Santiagora oinez joan eta etorri egin du Xacobeo urte honetako bi hilabetetan; jende berezia topatu duela dio.

JOXEMI SAIZAR

Xacobeo urtea da, aurtan Santiago Eguna igandean tokatzen delako. Horrek esan nahi du Donejakue Bidean erromes kopurua asko handituko dela. Gure eskualdeko asko ere animatuko da urtean zehar, batez ere sartzeaz gauden udan. Baina ez dena hain ohikoa da Anjel Oiartzabalek (Alegia, 1945) egin duena: Alegiatik Santiagora joan eta gero, oinez bueltatu da. Urtarrilaren 11tik martxoaren 10era burutu zuen bidaia eta esperientzia azaldu dio HITZARI.

Jende gutxi eginen du zuk egin duzun. Zergatik egin duzu?

Beti nuen buruan Santiago Bidea egitea, baina denbora behar da. Orain erretiratu nago eta denbora

badut. Joaterako garbi nuen etorri ere oinez egin behar nuela. Eta hala egin dut. Denbora izanez gero, behin joanez gero, ez dago arazorik bueltatzeko.

Prestakuntza berezirik egin al duzu?

Ez. Betimendian ibili izan naiz, hemen inguruan; Pirinioetan, Alpeetan... Eskiatzen, eskalatzenez zer bait... Hemendik aurrera zelaian ibili beharko dugu, adina aurrera doa eta.

Santiagora joateko bide asko daude. Zein da aukeratu duzuna?

Alegiatik abiatu nintzen euskal bidea deitzen dutena hartuz: Beasain, Agurain, Gasteiz, Argantzón, Haro eta Santo Domingo (Ozkabarte). Han bide frantsesarekin

(Domibane Garazi eta Orreagatik datorrena) elkartzen da eta handik aurrera bide hori jarraitu nuen.

Negua izanda, zer moduzko eguraldia izan duzu?

Joaterakoan lehorra, baina hotz ikaragarria. Eta itzuleran euri, elur eta haize dezente izan nuen. Eskerak ondo ekipatuta nindoala.

Arazorik ez?

Abentura pixka bat San Adrian pasatzeko izan nuen, bai joaterakoan eta bai itzultzerakoan. Elurra zegoelako. Joaterakoan beldurtu egin nintzen eta etxera itzuli nintzen. O Cebreiron ere elurra topatu nuen bitan.

Zenbat ibiltzen zinen egunero?

25 kilometro inguru. Denek etapa beretsuak egiten ditugu. Ozkabarren lauzpabost lagun elkartu ginen. Gehienez 34 km egin nituen egun batean. Etxera itzultzeko presarik ez nuenez, nahiago nuen lasai ibili. Leonen atsedenez gure bat hartu nuen eta gero ondo etorri zitzaidan, aurretik zihoazen lagunek informatzen zidatelako albergeen egoeraz eta bideaz. Horieta-ko lagun bat gero Galizian itxaron zidan, nirekin batera bukatzeko.

Gogorra al da?

Ez, ibiltzen ohituta egonez gero behintzat. O Cebreiro gogorra dela esaten dute denek, baina Txindoki edo beste edozein mendirekin konparatuta, ez da hainbeste. Hanketan problema asko izaten ditu jendeak. Nik problemarik ez dut izan. Ez dut eraman botikinarik, baina ikusi ditut batzuk motxila erdia botikinez beteta zutenak. Fisikoki ez da gogorra. Beste arazo

batzuk daude. Arazo asko duen jendea ikusi dut bidean: pikarreak, istripu latz baten ondoren promesa egindakoak, Bidean engantxatutakoak...

Nongo jendea aurkitu duzu?

Denetik, europar asko, hego korreak (ez dakit zergatik, agian libururen bat aterako zuten)... Euskaldunak ere bai, noski, toki guztietan topatzen dira eta. Tartean tolosar bat ere bai.

Zer gehiago aurkitu duzu Bidean?

Negua izanda, alberge asko itxita. Herri oso txikiak dira batzuk eta agian ez duzu inor ikusten. Hori arazo bat da eta joan aurretik kontuan izan behar da, uste baino kilometro gehiago egin beharrean aurki zaitezkeelako. Beasainen bada Donejakue Bideko elkarte bat eta urte garaia argi galdetzeko esan diet elkartekoei, ezin delako aholku berdina eman udan edo neguan. Hala ere, berriz egitekotan, nik neguan egingo nuke, lasaiagoa delako jende aldetik.

Zer moduz albergeak?

Oso ondo daude: txukunak, ohe, dutxa eta komun onak... Kafekazioa ere badute normalean, baina Sahagunon ez zegoen. Itzultzerakoan, euri asko ari zuen eta blai eginda iritsi nintzen. Arropa lehortzeko ezer ez zegoen eta hostal batera joan nintzen. Arduratzen zen udaltzaina haserretu egin zitzaidan kezatu egin nintzela eta. Ez zen kexa, pulmonia harrapatzeko arriskua baizik.

Eta ospitaleroak edo albergeetako arduradunak?

Lan ona eginen dute. Beharrezko-

ak dira. Udan gainera, asko beharko dira, jende gehiago eta alberge gehiago irekita daudelako. Argantzónen alkatea arduratzen zen. Eta urteko lehen erromesa nintzela esan zidan. Hildakoei lur ematea ere tokatzen zaie alkateei herri txiki horietan. Argantzón Burgos izanda, Miranda de Ebrotik joatea bultzatzen dute, baina zaila dute, Ozkabartek indar handia duelako Bidean. Albergea orain dela gutxi berritu dute gainera. Haron ere neguko lehena nintzela esan zidan ospitaleroak.

Janarekin nola moldatu zara?

Goizean abiatu eta bidean galdetzen nuen kafesnea edo tea. Eguerdian zer bait pikatu eta afaletzeko jate txerren batera joaten nintzen. Erromesen menua mugatu xamarra da, beti berdintsua. Neguan ere normala izango da hori, eskaera handirik ez dagoelako.

Eta Santiagora iritsi eta zer?

Egun pare bateko atsedena hartu nuen: Gozo mendiko albergean egon, hiria ikusi, Compostela agria hartu, katedralera pare bat aldiz joan... Itzultzeko zalantza izan nuen bide frantsesa edo kostakoa aukeratu. Hau neguan egiteko ez zidaten gomendatu eta joandako bidetik bueltatzea erabaki nuen. Ezagutzearen abantaila nuen gainera: bidea, albergeak, jatetxeak... Batzuk Finisterrean ere joaten dira. Zer bait utzi dugu hurrena joatea okurriruz gero.

Eta itzuleraz, zer moduz?

Ondo etorri nintzen. Etapa beretsuak egin nituen. Bideak arazo txiki bat du: seinaleek denak harantz bide galdetza eta kontuz ibili behar da seinaleekin. Zure burua joaten diren lekuan jarri behar duzu. Denek aldrebes nindoala esaten zidaten eta nik ezetz, bueltan nentorrela erantzuten nien.

Zergatik egin duzu Bidea?

Compostela agria hartzerakoan hori galdetzen dute eta arrazoi espiritualak eta kulturalak jarri nituen. Zure buruari askotan galdetzen diozu eta apaiz batek ere behin galdetu zigun eta eztabaida sortu zen gure artean. Azkenean arazoi segurua bakarria dago: bidea hor dagoelako. Mendizale bati ere mendira zergatik joaten zengaldetu eta mendiak hori daudelako erantzun zuen. Hortik aparte baikoitzak bere arrazoiak izango du Donejakue Bidea egiteko.

Gomendatzeko moduko esperientzia?

Bai, baina gazteei bizikletaz egiteko esaten diet, hainbeste denbora ez dutelako eta horrela motzagoa delako. Aurrerago egingo dute oinez.

Ekonomikoki, zer moduzkoa da Bidea?

Ekonomikoki eroso da, ez da oso garestia albergeetan moldatuz gero behintzat. Arraroa daneguan batzuk itxita egotea eta udan jende betetzen direla ikusteak. Albergeetatik aterata asko garestitzen da bidaia.



IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAK

Bi langile behar ditu 10-11 ikasturterako

- Lehen Hezkuntzarako irakaslea ingelera espezialitatearekin
- Currículuma bidali "LH ingelera 10-11" zehaztuz
- Zientzietan lizenziatua
- Currículuma bidali "DBH 10-11" zehaztuz

Curriculumajastozeko epea: **ekainaren 22a**

Tf.: 943 671 299 E-maila: ibarra@ikastola.net



Pili Otaegi bere etxeko balkoian sendabelarrez inguratutako o. p.

Pili Otaegik urte asko daramatza sendabelarrekin lanean botika naturalak egiten. Olioak eta ukenduak dira bere berezitasunak. Orain gutxi ireki den Larrauleko Eko-Museoan bere produktuak eskuratu daitezke.

Sendabelarren magia

OLATZ PEÑAGARIKANO

Sendabelarrak ziren antzina gaitzak sendatzeko erremedio bakanak. Urteetan ezkutuan egon diren arren, fede handia dute batzuek hauen gain. Horietako bat da Pili Otaegi, Larraulen bizi den lasartearra. Betidanik baserri inguruko belarrez inguratua egon arren, hauekiko grina eta afizio beranduagotik dator.

Duela 20 urte hasi zen oharkabez belarren munduan mugitzen, ukendu baten errezeta eskuratu zuenean, intsusa belarrez egindakoa, hain zuzen. Beranduago ikastaro bat egitea erabaki zuen Gabriel Vazquez Molinaren gidaritzapean, eta harrezkero «segurtasuna» irabazi ostean, ez dio utzi

sendabelarrak ekoizteari. Sendabelarrek erabilpen ugari dituzte, baina Otaegik, batez ere, ukenduak eta olioak egiteko erabiltzen

ditu belar hauek. Egunduen hamar mila ukendu desberdin egiten ditu: aloeveraren, intsusaren, berbeneren, berbena eta pasmobelarraren,



Olioak eta ukenduak erabiltzeko prest o. p.

untzaren, kalendularen, kamamilarren eta zazpi belarrez osatutako ukenduak. Orbaintzeko eta ultzeratarako ukenduak ere egiten ditu.

Intsusa ukendua da, esaterako, Otaegiren gustukoa. Erremedio askotarako balio du, hala nola, hidratarako, erredurak baretzeko, zauriak orbaintzeko... Hala ere, belar bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta bilatu nahi den efektuaren arabera bat edo beste erantsi behar da pomada egiterakoan.

Etxekoa beti izan ohi da kanpoko baina hobea. Beharbada horregatik dira lasartearren errezetak arrakastatsuak. Jende ezagunak egin ohi dizkio eskaerak, baita saltoki batzuek ere, izan ere «merkatuan ez dago horrelakorik». Eskiera gehienak bereziki berbena eta berbena-pasmobelarraren ukenduarenak dira; oro har, azaleko zauriak (granoak...) edota infekzioak sendatzen laguntzen baitu.

Ukenduaren prestaketa

Bi egunetan egin daiteke sendabelarren ukendua. Hona jarraitu beharreko pausuak:

Sendabelarra oliotan ipini (begiz egin daiteke, olioak onartzen duen belar adina botaz) eta su motelean jarri behar da. Horretarako, komeni da belarra eguerdialdean biltzea, eta hobe ilgoran, beti ere, errepide bazterretakoak edota industrigunekoak baztertuz.

Berotan dagoelarik **argizaria gehituko diogu**.

Sutan ordu betez egon behar du, irakite leuna lortu arte.

Ondoren, **gau guztian** utzi behar da **atseden hartzen** (ilargiaren argitan, aukeran).

Hurrengo egunean berriz jarriko da **sumotelean**, eta behin urtutakoan **iragazi** egingo dugu zikinzeria kentzeko.

Bero dagoen bitartean **potectan sartuko dugu** ukendua eta hozten utziko da.

San Joan bezpera

Hemendik aurrera olioak egiten hasiko da Otaegi. Eguraldi ona eta pazientzia dira hauek egiteko osagai nagusiak. Olioak, ukenduak ez bezala, 40 eguneko atseden behar izaten du eguzki argitan. Horretarako, kristalezko potoan olioak eta belarra nahastuko ditugu; olioak ahal bada eguzki-lorearena edota almindrarena izatea komeni da. San Joan belarra, kalendula eta kamamilarrekin ere prestatzen ditu hauek.

Pili Otaegik adierazi duenez, saio ezin hobea da haxe belarrek dituzten propietateak aprobetxatzeko, batez ere, San Joan bezpera. Landareak energiaz betetzen dira urteko egunik luzeenean, hauen magia areagotzen delarik.


Bitartean eguzki izpien esperotan egotea besterik ez zaigu gertatzen.

Gehiago itxaron ezin duenak, ordea, Larraulen bertan dagoen Eko-Museora jo dezake. Bertan daude eta Pili Otaegik prestatutako zenbait produktu.



» SALBIA

■ **Ezaugarriak.** «Emakumeen sendabelarra» bezala ere ezagutzen da. Izan ere, emakumeen hilekoaren gora-beherak orekatzeko balio du. Energiak erregulatzeko egokia da, baita menopausiaren sintomei aurre egiteko ere. Belar hau landatu egiten da.



» ZAINGORRIA

■ **Ezaugarriak.** Giza zainaren forma du eta kolore gorrikoa da. Odola garbitzeko balio du eta emakume batzuek hilekoaren garai hartzen dute infusioan nahasturik. Pili Otaegik noizean behin infusio-etarako erabiltzen du.



» OSINA

■ **Ezaugarriak.** Ukenduetarako erabiltzen ez den arren, sukaldarako aproposa da (zopari, potajeari nahasteko...). Bitamina eta kaltzio ugari du eta barrena garbitzen laguntzen digu. Zapora goxoa du.



» INTSUSA

■ **Ezaugarriak.** Ugaria da eta momentuan loretan daude. Landare gomendagarria, bertatik dena aprobetxatzen baita. Azalak ukenduetan denetarako balio du: hidratarako, orbaintzeko... Horretarako bigarren urtetik gorako azala aprobetxatu behar da.

Hunkituta jaso du izendapena Pasabanek

Gizartea » Atzo eman zioten ofizialki Tolosako Alaba Kuttun izendapena; 36 urte hauetan bere ondoan izan den jendea elkartu zen ekitaldian.

ESTI EZEIZA

Bi semerekin batera, Alaba Kuttuna ere badu orain Tolosak. Duela aste batzuk jakitera eman bazuen ere Udalak, atzo izendatu zuten ofizialki, Edurne Pasaban, Tolosako Alaba Kuttun.

Hasieratik bukaerara, ekitaldi hunkigarria izan zen atzoko. 12:00ak inguruan, erraldoiek ireki zioten bidea mendigoizaleari udallexera joateko. Han zain zituen Udal ordezkariak, mendizaleak, lagunak, familiakoak...

Mendizale bezala erdietsi dituen lorpenengatik ez ezik, «alde gizatiarrarengatik» ere eman dio bere jaioterriak saria. Horregatik, atzo, ekitaldian parte hartu zutenek kirolari bezala dituen merituak baino gehiago hitz egin nahi izan zuten Edurne alaba, arreba, izeba, biloba, ikaskide, ikasle, koa-drilako, herritar, bizilagun eta abar bezala dituen ezaugarriez.

Asier Izagirre mendizaleak nabarmendu zuenez, «Edurneri egiten zaion omenaldi hau, aldi berean, Tolosak mendizaletasunari egiten dion omenaldia da». Mendiak gauza on eta txar asko eman dizkiela ere nabarmendu zuen, eta

horien artean, lagun handiak dituztela aipatu zuen. Bidean joan diren asko ere gogoratu zituen.

Ekitaldian jende ezagun ugari ikusteko aukera izan zen, besteak beste, Tolosako alkate ohiak; Bartzar Orokorretako lehendakaria; Tolosako bi seme kuttunak, Antonio Zabala eta Juan Garmendia Larrañaga; *Al Filo de lo Imposible* saioko kideak; Gipuzkoako Mendizale Federazioko ordezkariak...

Une hunkigarri asko egon ziren goiz gutzian zehar, eta horietako bat izan zen, zuzenean, telefonoz, Gerlinde Kaltenbrunner mendigoizalearekin hitz egin zueneko. Edurne Pasabanek Udalar eta Tolosari izendapenarengatik eskerrik emateaz gain «pertsone batek ez ditu bakarrik egiten hamalau zortzimilako edo beste zenbait lorpen, inguratzen duten jendearekin ez bada», esan zuen. Hori dela eta, eskerrak eman nahi izan zituen bere inguruko, eta esan, «hau ez da bakarrik Edurneren lorpena», baizik eta, baita, 36 urtean, bere ondoan egon direnena ere. Honek ere, Izagirrek bezala, bere hizketaldian, bidean geratutakoak ekarri nahi izan zituen go-



'Al Filo de lo imposible' taldeko kideek parte hartu zuten atzo, Pasabani egindako omenaldian. E. EZEIZA



Alex Txikon 14 aldiz igo zuen 100 kiloko harria, eta 14 enbor moztu. E. EZEIZA



Erraldoiek eta Laskorain ikastolako abesbatzakoek ere hartu zuten parte. E. E.



Kaleak saskibaloia kantxa bihurtuta

KIROLAK » San Joanetako jaien usaina eta giroa saskibaloiko jokalariek gazteek ekarri zuten atzo Tolosako kaleetara. TAKE-k antolatuta, 3x3 txapelketa jokatu zen Gernikako Arbolan eta San Frantzisko paselakuan. Goizean, alebin eta infantilen mailako 37 talde aritu ziren lehiaran, eta arratsaldean, beste 28. XI. San Joan Saria zegoen jokoan, bertan. ESTI EZEIZA



Graffiteroen lehia iritsi da amaierara

KULTURA » Herenegun, arratsaldeko lehen orduan zuriz margotuta zeuden paretak guztiek bizia dute jada. Orduan hasitako Graffiti Lehiaketa atzo iluntzean iritsi baitzen amaierara. Irudi koloretsuak edo kolore urrikoak, errealak diruditenak nahiz guztiz abstraktuak direnak aurkitu daitezke herriko gune ezberdinetan. AGURTZANE BELAUNZARAN

Txindoki gainean korrikalaririk onenak

Abaltzisketa » Faboritoak nagusitu ziren lasterketan: Didier Zago gizezkoetan eta Nerea Amilibia emakumezkoetan.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Txindokiko gaina lainotuta eta triste esnatu bazen ere, lasterkariak ez zuten hutsik egin. Goizean goiz nabaria zen mugimenduan Larraitzeko inguruetan.

10:00etan eman zion hasiera lehen korrikalarik Txindokiko Bertikala mendi lasterketari. 30 segundoko diferentziarekin banan-banan atera ziren gainontzekoak. 11:45ean atera zen azkenengoa, faboritoa, Didier Zago.

Bidea lokaztua bazuen ere, frantziarrak erakustaldi bikaina eman zuen atzokoan. 34'33" behar izan zituen Txindoki puntan hankak jartzeko. Walter Becerrak lortu zuen bigarren postua. Lehen euskaldunak, Zuhaitz Ezpeletak, hirugarren postua eskuratu zuen.

Emakumezkoetan ere, faboritoak eman zuen sari nagusia, Nerea Amilibia aiarrak, 42 minutu eta 37 segundoko denborarekin. Bertikalen lasterketetan punta-puntan dabilzan korrikalariek nagusitu ziren Txindokin. Uztailaren 4an dute hurrengo zita Azpeitian.

Beteranoen saria, eskualdera etorri zen, Juan Mari Garin aiegarrak, 37minutu eta 44segundotan igo baitzuen 931 metroko desnibeleko ibilbidea. Hala ere, Garinen

eskuetan dago Txindokiko errekorra. Duela 17 urte, Larraizko baselizan korrika hasi eta Txindoki igotzeko 33m 40s lapurtu baitzizkion erlojuari. Gaurko garaileak ere ez du marka hori hobetu.

161 korrikalarik hartu zuten parte. Hauen artean, eskualdeko jende ugari izan zen atzo Txindokiko aldapei aurre egiten.

Antolatzaileak pozik daude parte hartzaileen kopuruarekin. «Korrikalari asko izan ditugu, baina ikusle gehiago espero genituen», azaldu dute. Datorren urtean, II. Txindokin Bertikala egiteko asmoa azaldu dute. Mendia eta kirola maite dutenek, badute denbora beraz, biak uztartu eta datorren urtekorako prestatzeko.

» SAILKAPENA

Gizezkoak

■ **Seniorrak.**
Didier Zago: 34'33"
Walter Becerra: 36'31"
Zuhaitz Ezpeleta: 36'59"

■ **Junioarrak.**
Iñigo Unanue: 47'51"

■ **Beteranoak.**
Juan Mari Garin: 37'44"

Emakumezkoak

■ **Seniorrak.**
Nerea Amilibia: 42'37"
Yolanda Gurendez: 47'17"
Jone Urkizu: 51'23"

■ **Beteranoak.**
Elena Calvillo: 46'10"



931 metroko desnibelari aurre egin zioten korrikalariek. ESTI EZEIZA



Umeek aurpegiak margotu ondoren jolasak egin zituzten. A. BELAUNZARAN

Gazte Festen azken eguna gaur

Ibarra » Umeek jolas egiteko aukera izan zuten atzo. Dantza taldeen emanaldi eta erromeriak osatu zuten eguna.

ERREDAKZIOA

Txikienek hasi zuten atzo eguna. Aurpegiak margotu eta tximeleta eta pirata bihurtu ziren denak. Puxika eta zapiaren jolasa egin zuten. Arratsaldean, pirata bizkorrenak altxorren bila aritu ziren. Tortillada eta txokolatada goxo-goxoak prestatu ziren, meriendaren orduan. Ondoren, Alurr eta Lizarrako dantzariak emanaldi polita eskaini zuten. Erromeriaren txanda gauean iritsi zen, Laiotz taldeak plazan bildutako gorputzak mugiarazi zituen, fandango, arin-

arin, kalejira eta euskal kantutegi-ko abesti ezagunekin. Tartean, Atarrabiako Gas taldeak emanaldia eskaini zuen.

Loatzo musika eskolakoez hasiko dute gaurko Gazte Festen azken eguna. Atzoko festaren ondoren, poteorako indarra eta gogoa dutenek, 12:30ean du hitzordua plazan. Plazan elkartu eta poteo masiboa egiteko asmoa baitute. Herriko tabernetan bisita laburrak egingo dituzte, bazkalorjuan gazteak Xepla elkartearen bilduko baitira. Pototxotx bertso eskolako kideek giro txikiagoa dute bazkalordua.

Arratsaldean, Xiba jokoetan, 10 herri ezberdinetako kideek, herri kirolen erakustaldia emango dute.

Eguna hasi bezala amaituko da, musikarekin. Desordutan talde tolosarrak Gaztefestean eskainiko du kontzertua.

VII. Hitza Txapelketa finalderdian da

ERREDAKZIOA

Eskualdeko lau herritan jokatu ziren ostiral iluntzean VII. Hitza Txapelketa pilota partidak. Albizturren jokatu zuten Benjaminek. Elizegi-Zabala bikoteak 16-9 irabazion zuten Dorronso-Etxeberriari. Partida orekatua jokatu zuten Hernandez-Tolosak eta Morales-Zinkunegik, azkenean partida 12-16an bukatu zen. Aizkorbe-Apezteak bikoteak erraz garaitu zituzten Aranburu-Osa aurkariak, 16-7 irabaziz.

Alegian Alebinek jokatu zuten. Mattin-Elola eta Plazaola-Jauregiaren partidak, 16-12 markatu zuten markagailuan. Gorostidi eta Ezeizak, Salaberria-Marizkurrenaren aurkakoa 12-16 galdu zuten. Usandizaga-Elola bikoteak, pilota asko galdu zituzten eta Lezea-Telleteak markagailuan 8-16 erraz hartu zuten aurreratu zitzaizkien. Azken partidari, herritarrek garai-

pena lortu zuten etxean, Altuna-Irazustabarrenak 16 tanto egin zituen ostiral iluntzean VII. Hitza Txapelketa pilota partidak. Albizturren jokatu zuten Benjaminek.

Infantilak Bidegoianen aritu ziren. Larrea-Peña bikotea erraz hartu zuten aurrea Chiapuso-Olarrari, 18-5 irabaziz. Urdanpillleta-Urdanpillleta bikotea eta Larombe-Sarasaren arteko oso orekatua izan zen, 16-18koa lortuz. Egiguren Muruak 9-18 galdu zuten Arteaga-Aburuzuaren aurka. Azpiroz-Oskoz eta Noble-Etxenikeren arteko 18-9an geratu zen.

Tolosan Senior mailako partida bat jokatu zen. Quina-Zubiri eta NARBATE-MUGIKAREN partida 22-14 amaitu zen. Bihar Tolosan jokatu dute Apezteak-Galarraga eta Senperena-Biainek Senior mailan. Jubenetan berriz, Artola-Zinkunegi eta Santxo-Aretxabaletak jokatu dute.



Herri kirolak eta asto jatea

HERNIALDE » Aste Kulturalean herri kirolak izan ziren nagusi atzo. Aizkoran Jose Mari Olasagastik, Adrian Tolosa eta Joakin Garmendia bikotearen aurka neurtu zituen indarrak. Zutikako kanakoa moztu zuen igel-dorreak, 72 ontzako 3 enbor bestek. Harri-jasotze

erakustaldia egin zuten Jose Calvo eta Iban Ugarte-mendiak. Imanol Iruretagoiena entrenatzailearen agindua jaso, hiru herri ezberdin altxa zituzten. Kirolariak plazan lanean ari ziren bitartean, Jexux Lizasok astoa erre zuen herri bazkarirako. A. BELAUNZARAN



16°
11°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	OSKARBI
BEROENA	17°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Ibarra.** Gazte Festak: 12:00etan Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua; 12:30ean poteoa; 14:30ean bazkaria Xepian bertso-lariekin; 16:00etan euskal jokoak Xibarekin; 22:00etan Desordutan taldearen emanaldia Gaztetxean.
■ **Tolosa.** San Joan jaiak: 09:00etan diana GiroArte dultzaina taldearekin; 10:00etan XXXVII. Nazioarteko Xake-joku Lehiaketa taldeka XXXIV. Enrique Pineda Memoriala Kultur Etxean; 12:00etan Oria ibaian batel estropadak (saikapen probak); 12:30ean Usabal kiroldegian kimu futbolaren Topaketen finalak.

Deialdiak

■ **Tolosa.** 13:00etan lurreamendiko Adinekoen Astea amaitzeko bazkari berezia.
■ **Anoeta.** Ekainak 29ko greba orokorra antolatzeko bilera zabal bat egingo dute herrian bihar astelehena 19:00etan udaletxean. He-

rritar oro gonbidatzen dituzte bertara azaltzea.

Aisialdia

■ **Hernialde.** Asteburu Kulturala: 09:30ean mendi ibilaldia, Hernialdeko kobazuloan sartuko dira; ondoren, hamaiketako egingo dute.

Zinema

■ **Tolosa.** *Que se mueran los feos* filma Leidor aretoan gaur 19:30ean eta 22:00etan.
■ **Tolosa.** *La nana* filma Leidor aretoan bihar astelehena, ikuslearen eguna, 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



MUNDUAN
DAGO
ZURE
ETORKIZUNA

Hitanoari buruzko HITZALDIA

Hizlaria: Ribxi Lizartza
*Mintza hezi, lagun! liburua*ren egilea
Eguna: ekainaren 22a
Ordua: 18:30ean
Lekua: Tolosa, Gorosabel kalea 40

Hitanoaren erabilerari buruzko azalpen orokorrak emango ditu ordu eta erdiko saioan, eta entzuleek edozer eratako zalantzak edo galderak planteatzeko aukera izango dute. Alokutiboaren ezaugarriei buruzko jardura hau, azken batean, hitanoa euskalduntze prozesuan sartzearen aldeko gogoeta da.

Hitano Itastaroak
TOLOSAN
Uztailaren 5etik 16ra
30 ordu
Matrikula irekia
8:00etatik 11:00etara

MATRIKULA IREKIA Tel.: 943 674 733
Bete beharreko baldintzak:
EGA, MAILA IZATEA
edo/eta
EUSKALDUN ZAHARRA IZATEA

www.elduaian.com

TOLOSAN (BILU ZENTRO): Tel. 943 67 47 33
DONOSTIA (GINDARRETA - INTXAURRONDO):
LASARTE - URNIETA - VILLABONA - ALEGIA



ISO 9001
(Gindarra)

elduaian

Herriko hedabideak - komunikazioa berraztertzen